

HEZKUNTZA JARDUNALDIAK: *Hezkuntza aldatzea, mundu aldakor baterako*

HEZKUNTZA ALDATZEKO KATALUNIako MUGIMENDUA

ESCOLA NOVA 21

Ikastetxeek eta erakundeek hezkuntza-sistema aurreratu baten alde egindako aliantza bat da Escola Nova 21. Sektore guztiek hezkuntza hobetzeko prozesu inklusibo batean parte hartzeko UNESCOk egindako deia erantzuten dio aliantza horrek. 2016ko urtarrilean sortu zen, Kataluniako UNESCO Zentroaren, Jaume Bofill fundazioaren eta Universitat Oberta de Catalunya unibertsitatearen arteko hitzarmen bidez. Gero, batu zitzaizkion “la Caixa” fundazioa eta Bartzelonako Diputazioa.

Programak, hasiera-hasieratik, sinatu du lankidetzaren hitzarmena Kataluniako Generalitateko Departament d’Ensenyament sailarekin. Sail horrekin elkarlanean dihardu hezkuntza aldatzeko ekintzak planifikatzen, eta, hartara, batzen zaio hezkuntza-administrazio profesionalen egiten duten lanari. Bartzelona hirian, “Xarxes per al canvi” programaren bitartez artikulatzen da Escola Nova 21. Ekimen horren buru dago Consorci d’Educació de Barcelona partzuergoa (Ajuntament de Barcelona eta Generalitat de Catalunya).

Escola Nova 21ek hezkuntza sistema eraldatzea proposatzen du, erabat eguneratuz, gure testuinguru historikoan bizitzeko gaitasunak garatzea eta pertsonen ikasteko duten eraren inguruan dugun ezagutzan oinarritutako ikaskuntza praktikak ezarri xede nagusi gisa.

Hezkuntza aldatzeko nahia 3 urteko ekintza batean katalizatu nahi du Escola Nova 21ek, atzera bueltarik ez duen mobilizazioa sor dezan Kataluniako hezkuntza sistema osoa aldatzeko. Lau ekintzaren bidez egiten du: egun eskola eta sisteman martxan dagoen eguneratzearen sendotzea; lankidetzaren hezkuntza aldatzearen alde; aliantzak hezkuntza arloko eta tokiko administrazioekin, erantzunkidetasuna bermatzeko aipatu aldaketan; eta sistema aldatzeko protokoloak sortzea eta frogatzea.

XARXA PARA EL CANVI

“Xarxes per al canvi” (Aldaketarako sareak) programa 2017ko otsailean sortu zen, *Consorci d’Educació de Barcelona* delakoak bultzatuta eta *Escola Nova 21*, UABeko (Bartzelonako Unibertsitate Autonomoa) ICE eta *Associació de Mestres Rosa Sensat* elkartearen arteko lankidetzaren hitzarmenaren ondorioz. Aipatu aliantza funtsezkoa da gure gizarteak bizi duen hezkuntza berritzeko testuinguruan.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea
ESCUELA UNIVERSITARIA DE MAGISTERIO DE BILBAO
BILBOKO IRAKASLEEN UNIBERTSITATE ESKOLA

Hezkuntza arloko lau eragile horiek 2017-2020 epealdian elkarrekin lan egiteko konpromisoa hartu dute, ikasle guztiei hezkuntza-esperientzia inklusibo, atsegingarri, ahalduntzaile eta kalitatezkoa sustatuko duen hezkuntza sistema zuzen bat lortu ahal izateko.

Hiriko 21 eskola-sareek erantzukizunez lan egiten dute instituzio bera etengabe hobetzen, irakasleen garapen profesionalean, eskolen arteko lankidetzan eta taldeko ikerketan. Testuinguru horrek, honela, koherentzia bermatzen dio eraiki eta partekatzen dugun eta eskolak eta gizarteak dituzten erronka globalen aurrean batzen gaituen balio-sistemari.

Programak, bere lehen deialdian, lehen eta bigarren hezkuntzako 150 eskola bildu ditu, publiko zein itunpeko. Beren nahia da Bartzelona hiriko hezkuntza-eremuetan oinarritutako sareak -19 lehen urtean- osatzea. Gertuko sareak dira, horrenbestez, inguruaren eta hiriko gizarte-hezkuntzako eta kultura testuinguruko aldagai eta erronketako batzuk partekatzen dituzten elkarren gertuko eskolez osatuta. Bigarren deialdi batean, 54 eskola publiko berri gehitu ziren. Honela, 21 saretan bilduriko 204 eskola daude egun.

EDUARD VALLORY

Eduard Vallory Kataluniako UNESCO Zentroaren presidentea da, eta, Generalitatearen aginduz, bultzatzen du maisu-maistren garapen profesionalerako unibertsitate-programa. Gizarte-analista da eta aldaketaren kudeaketan aditua, batik bat hezkuntzaren hobekuntzan zentratua. Politika eta Gizarte Zientzietan doktorea da (UPF), Gizarte Zientzietako masterra du (University of Chicago), Filosofian (UB) eta Kazetaritzan (UPF) lizentziatua da eta Enpresen Goi Zuzendaritzan diplomatua (IESE). Barcelona Graduate School of Economics eskolako zuzendaria izan da, baita New York University unibertsitateko visiting scholar-a, Fitzwilliam College eskolako (University of Cambridge) research fellow-a eta Generalitateko Unibertsitate, Ikerketa eta Informazioaren Gizarteko kontseilaria (2000-03). Kataluniako Gazteriaren Kontseilu Nazionaleko presidentea ere izan da. World Scouting: Educating for Global Citizenship (Palgrave MacMillan) argitaratu du.

ROSA ARTIGAL

Rosa Artigal Maisutzan diplomatua da —katalanaren didaktikan eta Pedagogia Terapeutikoan—, eta Psikopedagogian lizentziatua da. Bartzelonako Costa y Llobera institutu-eskolan haur-hezkuntzako, lehen hezkuntzako eta bigarren hezkuntzako irakaslea izan da (1979-2017), eta idazkari (2002-2004), ikasketaburu (2003-2004), koordinazio pedagogikoko buru (2004-2005) eta zuzendari (2005-2017) postuak ere bete ditu. Bartzelona hiriko Zuzendarien Lurralde Batzordeko kidea da. Unibertsitatearen esparruan, zenbait gradu-ondokotan eta masterretan irakaslea izan da Bartzelonako Unibertsitatean, Bartzelonako Unibertsitate Autonomoan eta Ramon Llull Unibertsitatean. Horrez gain, UABeko Hezkuntza Zientzien Institutuko lantaldeko kidea da. Era berean, Rosa Artigalek hezitzaile- eta ikertzaile-lanak egin ditu, eta Bartzelonako Hezkuntzako Udal Institutuaren (IMEB) aholkularitza- eta



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea
ESCUELA UNIVERSITARIA DE MAGISTERIO DE BILBAO
BILBOKO IRAKASLEEN UNIBERTSITATE ESKOLA

prestakuntza-taldeko kidea izan da. Zenbait artikulua eta liburu-kapitulua idatzi du hezkuntza-metodologiari buruz, proiektuen araberako lanari buruz, dibertsitatearen tratamenduari buruz eta ikastetxeen zuzendaritzari buruz.

BEGONYA FOLCH

Begonya bigarren hezkuntzako irakaslea da eta Bartzelonako Hezkuntza Partzuergoko Berrikuntza, programa eta heziketa arloan lan egiten du, *“Xarxes per al canvi”* (Aldaketarako sareak) programan. Lehen hezkuntzako irakaslea izan da ere, bai eta irakasle elkartua ere Bartzelonako Unibertsitateko (UB) Irakasleak Hezteko Fakultatean. Kataluniako Generalitatearen Departament d’Ensenyament saileko Hezkuntza Berrikuntza eta Ikerketako Zerbitzuan lan egin du (2010), eduCat1x1 programan, eta Kataluniako Eskola Kontseiluan (2011). Irakasleen heziketari dagokionez, Departament d’Ensenyament sailarekin eta Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko (UAB) ICEarekin lan egin du hezitzaile gisa, bai eta lan-taldetan ere, eta Associació de Mestres Rosa Sensat elkartearekin eta *Perspectiva Escolar* aldizkariako Erredakzio Kontseiluan.

IRAKASLEEN HASIERAKO PRESTAKUNTZA ALDAKETA PROZESUAREN ERAGILE

EHUko Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskolak, Magisteritzako Graduen ezarpenarekin metodologia aktiboak garatu dira, zeintzutan ikasleria ikasketa prozesuaren ardatz den. Ikasleak euren hezkuntza prozesuaren gune eta ardatz izatea ezinbestekoa da, taldean eta elkarlanaren bidez dituzten gaitasunak garatzeko.

BEGOÑA BILBAO

Begoña Bilbao Doktorea, Didaktika eta Eskola Antolakuntza Saileko kide da. Pedagogian doktorea. Eskolako Zuzendaritzan zenbait kargu bete ditu, Berrikuntza eta Kalitateko Zuzendaria, Idazkari Akademikoa 2009tik hona. Graduen ezarpenean gidaria izan da eta Barne Kalitate Sistemako diseinuan zuzendaria. UPV/EHUko GARAIA Ikereketako talde egonkortuko kidea da eta ikerlaria Eusko Jaurlaritzako *“Hezkuntza, Kultura eta Gizartea”* 11/54 UFlan.

BAIKUNE DE ALBA

Musikaren Adierazpenaren Didaktika Saileko kidea da. Konposaketa eta Orkestra Zuzendaritzan Titulaturatua. Administrazio Publiko eta Hezkuntza Zentroetako gestioan graduondoduna. Hezkuntza arloan hainbat gestio kargu bete ditu eta gaur egun Bilboko Irakasleen Eskolako Akademi Antolakuntzako zuzendaria da.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea
**ESCUELA UNIVERSITARIA DE MAGISTERIO DE BILBAO
BILBOKO IRAKASLEEN UNIBERTSITATE ESKOLA**

BERRIKUNTZA, ALDAKETA MOTORRA: AURRERAPENAK ETA GURE LURRALDEKO ERRONKAK

URDANETA IKASTETXEA, AMARA BERRI SISTEMA ETA KALITATE HEZKUNTZAN SAREA.

Gaur egun, Amara Berri Sareko kide gara. Denok, Hezkuntza Proiektua dugu ardatz, non hezkuntza ikuspuntu bera eta ikaslea izaki global bezala ulertzen dugun. Nahitasun eta praktikaren arteko koherentziak, planteamendu metodologiko eta pedagogiko batera eta ikaskuntzarako testuinguru sozialak programatzera garamatza. Antolamendu -egiturak esku hartzeko estrategia giltzarriak eta prestakuntza esparruak dira, lan taldeak hezkuntza praktikaren hausnarketa eta sakontzea ahalbideratu eta ikasleengan eragin zuzena duelako.

Bagara “Kalitate Hezkuntzan” sareko partaideak ere. Honen bitartez, kudeaketa eredu bera partekatzen dugu eta zentroen arteko praktika onak elkar trukatzeko aukera dugu.

NEUROZIENTZIA, HEZKUNTZAN APLIKATUA CARMELITAS SAGRADO CORAZÓN ESKOLAN

Carmelitas Sagrado Corazón eskolak hezkuntza berrikuntzari dagokionez izan duen arrakasta-faktore nagusietako bat aliantzen kudeaketa izan da. Gure proiektuaren ezaugarri dituen bi kezkaen ondorioz: hezkuntza-lanaren oinarri zientifikoa bilatzea eta gure arloko berezko endogamiatik ateratzea joera eta erantzun berriak aurkitzeko, Euskadin ezezik mundu mailan ere ospetsuenetakoa den garuna ikertzeko zentro batekin topo eta elkarrekin lanean hasi ginen. Ondokoarekin alegia: BCBL - Basque Center on Brain, Cognition and Language.

2011. urtean, Junior Lab laborategia sortu zuten Eskolan hezkuntzari eta, gehienbat, hizkuntzari loturiko ikerketak egin ahal izateko: elebitasuna, dislexia eta irakur-idazketa, bai eta arreta eta memoria bezalako gaitasunak ere. Carmelitas eskolak BCBLaren ikerketan parte hartzen du eta bere emaitzak zuzenean jasotzen ditu. Horrek, aipatu emaitzak egitarauetan eta ikasgeletan segituan aplikatzeko aukera ematen digu. Ikasleen partaidetzak, halaber, beren abilezien eta balizko gabezien inguruko ezagutza sakonagoa eskaintzen digu, ikasgelan detektatu baino lehen askotan. Horri esker, proaktiboak gara etorkizuneko balizko porroten prebentzioan eta tratamenduan, eskola-emaitza hobek bermatuz horrenbestez.

MAIZTEGI HL HI, IKAS KOMUNITATEKO ESKOLA .

Gure esperientziaren ardatz nagusietariko bat komunitate osoaren partaidetza da. Familiek, ikasleek, langileek eta irakasleok zein eskola mota nahi dugun amesten dugu. Amets hau aurrera eramateko, batzorde mistoetan eta formazio saioetan parte hartzen dugu.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea
ESCUELA UNIVERSITARIA DE MAGISTERIO DE BILBAO
BILBOKO IRAKASLEEN UNIBERTSITATE ESKOLA

Ikas komunitateko eskola izanik ikaskuntza prozesua kalitatezko interakzioetan eta gorenko mailako itxaropenetan oinarritzen da, berdintasunezko elkarrizketa bultzatuz. Egiaztapen zientifikoetan oinarritutako jarduera arrakastatsuek, hau da, tertuliak eta talde elkarreragileak, bide hau jarraitzen dute inklusioa eta elkarbizitza ere landuz.

ARIZMENDI IKASTOLA, KONFIANTZAREN PEDAGOGIAZ HEZKUNTZA EUSKALDUN KOOPERATIBOA

Atzean utzi dugun XX. mendean zehar ezer onik Euskal Herrian egin badugu, hezkuntza euskalduna inbentatzea, garatzea, hedatzea eta, horren ondorioz, euskal gizartea eraldatzea izan da. Zerotik abiatuta eta tradizioz gabe, soilik beren buruan eta ingurukoengan konfiantza izanez, Ikastola izenez, gizartea euskalduna izan zedila amesten zuten errot haiek ekintza soziala martxan jarri eta gorpuztu zuten, eta benetako berrikuntza soziala eragin zuten.

Pertsona (haurra, nerabea, gaztea eta heldua) euskaldunak, ordea, beste erronka bat du aurrean: pertsona kooperatiboa hezteko. Horretara dator Arizmendi ikastolak Konfiantzaren Pedagogia deitzen duena, horren iturrian, sorburuan, funtsezko galdera jakin bati erantzuna eman nahia baitzegoen eta dago: *Pertsona kooperatiboa hezi al daiteke, hezten lagundu al dezakegu?*

Jose Maria Arizmendiariaren pentsamenduaren oinarri zen *pertsona* hazteko eta hezteko, gaur zientziak aurrerabideak eskaintzen dizkigu, jaioberri diren haurtxoetatik hasita. Arizmendiariaren pentsamenduz ikerlan batek zioen: *“(...) Giza duintasuna errespetatzen duen komunitatea sortzea pertsona libreen, helduen eta duinen lana izango da. (...) Benetako iraultza ernatuko da kontzientzia pertsonalen eraldaketaren bidez. Gakoa autoaskapenean datza, autogestio pertsonalaren eta komunitarioaren baitan geroko aurrerabidea baitago”*. Hortan dihardu Konfiantzaren Pedagogiak.

ARRANKUDIAGA LHI, ESKOLA TXIKIAK

Arrankudiagako eskola, eskola publikoa eta txikia. Ikasleak, eskola bera, eta heziketa ikusteko begirada zehatza duen eskola. Ikaslea heziketaren erdigunean hartzea helburua duena, hau da, bera dela ezagupenaren subjektua, berak duela ikasteko gaitasuna, ez dela bete beharreko ontzia. Mundua ulertzeko, bertan kokatzeko, eta bestea eta norbera ulertzeko bidean pentsatzeko gai dela, entzuteko, galderak egiteko, baina baita ere, besteen iritziak entzun ondoren erabakiak hartzeko gai den ikasle profila hautematen duena.

Ikaslea ikusteko moduari aurre egiteko erronka metodologikoetan bidea egin duena. Ikasleekin ez ezik, irakasleen artean indagazio prozesuak martxan jarri dituena. Ikastetxe barruan eta bera bezalako beste eskola txiki batzuekin, sarean lan eginez, berrikuntza proiektu handi bat garatu duena.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea
ESCUELA UNIVERSITARIA DE MAGISTERIO DE BILBAO
BILBOKO IRAKASLEEN UNIBERTSITATE ESKOLA